

NAZIOARTEKO MUGIKORTASUN PROGRAMETAN ESKARIA EGITEKO JARRAIBIDEAK ETA ZTFko ARAUAK

1.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Nazioarteko Harremanen arloko Bulegoak UPV/EHUko ikasleei eskatutako baldintza orokorrez gain, (Beguiratu [Nazioarteko Harremanetarako Bulegoaren webgunea](http://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/) www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/), Zientzia eta Teknologia Fakultateko ikasleek **baldintza hauek bete beharko dituzte nahitaez: gutxienez 2. mailan matrikulatuta egotea eta eskaria egiteko momentuan gutxienez 1. mailako 48 kreditu gaindituta izatea.**

Hizkuntza eskakizunak eskariak aurkezteko epearen amaiera baino lehen lortuak izan behar dira eta ziurtagiriak epearen barruan Idazkaritzan (SAECYT) aurkeztu behar dira (jatorrizkoa + kopia). Ez dira onartuko deialdiaren epea amaitu ondoren eskuratutako hizkuntza ziurtagiriak. Soilik aintzat hartuko dira hizkuntza akreditazio ofizialak egiteko gai diren erakundeen ziurtagiriak (ikastetxeek, institutuek, akademiak eta abar ez dute balio).

Ikaslea mugikortasuna burutuko duen titulazio beran matrikulatuta egon behar da UPV/EHU. Ikasturtean zehar ikaslea titulazioz aldatzekotan eskuratutako mugikortasuna galduko du.

2.- ESKARIAK, EPEAK ETA DOKUMENTAZIOA

Eskariak online egingo dira, GAUR programaren bidez, 2023ko azaroaren 2tik 20era bitartean. (Beguiratu "Zure eskaria nola egin. Urratsez urrats"):

<https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/erasmus-latinoamerika-eta-beste-norakoak-2024-2025>

Oso garrantzitsua: eskaria egin baino lehen, ikasleak helmuga unibertsitate bakoitzeko webgunean aztertu beharko du ezagutzen duen hizkuntzan eskaintza nahikoa dagoen ala ez, dokumentu honetako 5. puntuan jasota dagoen kreditu kopuruaren arabera hitzarmen akademiko bat sinatu ahal izateko. Horrela, ikasgai egokien faltagatik ikasleak mugikortasuna uztea saihestuko da behin plaza esleituta. Ikasleak eskaria egin aurretik bere Graduko mugikortasun programen koordinatzailearekin kontsultatu beharko ditu alor akademikoaren zalantza guztiak (<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/programas-intercambio-alumnado>).

GAUR aplikazioan eskari bakarra egingo da ERASMUS+, Latinoamerika, Beste Norakoak eta TASSEP atzerriko mugikortasun programetarako, eta, gehienez, helmugako 8 unibertsitate hautatu ahal izango dira ikasleak adierazitako lehentasunen arabera. Ordena hori garrantzitsua eta loteslea da; izan ere, behin plaza bat hurrenkera horren arabera esleitua izan denean, ezin izango zaio plazari uko egin eta hurrenkera horretan beherago dagoen beste bat eskatu. Eskatutako mugikortasun-aldiak (lauhilabeteko bat edo bi) bat etorri behar du, ezinbestean, GAUR norakoen taulan unibertsitate bakoitzarekin batera adierazitako aldiarekin.

Ikasleek beren Graduari dagozkien plazak baino ezingo dituzte ikusi GAUREn. ERASMUS+ programan ez bezala, non plaza-kopurua eta plaza bakoitzaren iraupena agertzen diren, Latinoamerika eta Beste Norakoak programan lauhilabeteko kopurua baino ez da agertzen. Ikasleak lauhilabeteko baterako edo birako eskaera egingo du, bere interesen arabera.

Latinoamerikarekin sinatutako hitzarmenak UPV/EHUrenak edo Fakultaterenak izan daitezke. GAURren *Plazak partekatzen ditu, Bai*, agertzen bada, helburuko unibertsitatean eskaintzen diren tituluak dituzten UPV/EHUko ikastegi guztiak partekatzen dute plaza hori. Plaza horiek *kupo orokorra* dute izena. *Plazak partekatzen ditu, Ez*, agertzen bada, plaza horiek Zientzia eta Teknologia Fakultatekoak dira, eta, printzipioz, Fakultatean eskaintzen diren titulazio guztietako ikasleei daude irekita. Ikasleak egiaztatu beharko du unibertsitate bakoitzaren webguneetan bere Gradua irakasten den ala ez. Ikasleak zehaztu beharko du mugikortasuna lauhilabete baterako edo bitarako (ikasturte osoa) eskatzen duen.

TASSEP unibertsitateak Tassep Unibertsitateak AEB eta Tassep Unibertsitateak Kanada izenekin agertuko dira. Unibertsitate horietakoren bat hautatzen bada, *Official ECTS Application Form* eskari inprimatua SAECYT-en (Idazkaritzan) entregatu beharko da hizkuntza-ziurtagiriaren kopiekin batera. Eskari horrek gehienez ere herrialde horietako lau unibertsitate jasoko ditu. Eskari inprimakia TASSEP-eko webgunean eskura daiteke (<http://www.tassep.upmc.fr/en/index.html>), "Application Information", "How to apply" atalean. Bertan aurki daitezke ere TASSEP programan parte hartzen duten Kanadako eta Estatu Batuetako unibertsitateak zeintzuk diren.

TASSEP zientzietako ikasleentzako programa berezi bat da, eta Europa mailan egiten da esleipena. Beste urte batzuetako emaitzak kontuan hartuta, Kanadako unibertsitateak hautatzea gomendatzen da, aukera gehiago baitago horietako unibertsitateen batean esleipena lortzeko. Baita lauhilabete bateko egotaldiak aukera gehiago dituzte ikasturte osokoak baino.

TASSEP esleipena Fakultateak eta UPV/EHUko egiten dituzten esleipenen ondoren egiten da. Hortaz, TASSEP mugikortasuna eskuratzen duten ikasleek halabeharrez uko egin beharko dute ERASMUS+, BN ala Latinoamerika programetan aurretik esleitu zaien mugikortasunari.

3.- HIZKUNTZAK

Unibertsitate bakoitzak eskatzen dituen hizkuntza-baldintzak bete beharko dira. Baldintza horiek zeintzuk diren ikusteko, GAURren plaza bakoitzari buruzko xehetasunetan klikatu beharko da (luparen ikonoa). Orokorrean unibertsitateek ikasleak hautatutako herrialdeko hizkuntzan edo, klaseak bigarren hizkuntza batean jasoko balira, bigarren hizkuntza horretan ziurtagiria edo baliokidea aurkeztea eskatzen dute.

Beste Norakoak programari dagokionez, ia unibertsitate guztiak eskatzen dute TOEFL edo IELTS-eko maila, GAUR aplikazioan plaza bakoitzeko xehetasunetan ikus daitekeena.

Nahiz eta TASSEP programaren baitako unibertsitateen webgunean beste hizkuntza-baldintza batzuk eskatu, nahikoa izango da B2 maila edo baliokidea izatearekin. Hala ere, TASSEP esleipena egin ondoren helmugako unibertsitateak hizkuntza azterketa edo froga bat eskatu dezake. Baldintza guzti horiek GAUREn edo TASSEP webgunean kontsultatu daitezke unibertsitate bakoitzerako.

Italia eta Portugaleko unibertsitateei dagokienez, ez dago alde aurretik hizkuntza-baldintzarik. Hala ere, geroz eta arruntagoa da zenbait unibertsitate italiarrek italierazko oinarriko ezagupen batzuk eskatzea ikasturtea hasi aurretik (A2 adibidez). Ikaslearen esku geratzen da maila hori ziurtatzea mugikortasuna hasi aurretik.

GAUR aplikazioan eskaria egin ondoren, ikasleak hizkuntza-ziurtagirien kopiak aurkeztu beharko ditu **ezarritako epearen barruan** Fakultateko Idazkaritzan (SAECYT). Beste *Norakoak* programako plazen bat aukeratzekotan, ziurtagiria Nazioarteko Harremanetarako Bulegoan aurkeztu beharko da (Liburutegi Nagusia, 2. solairua- Leioa) edo eskaria egiteko momentuan plataformara igo. Baldintza hori bete ezean, ikasleak gaztelaniaz, portugesez edo italieraz irakasten duten unibertsitateetako plazak baino ezingo dituzte hautatu.

Nazioarteko Harremanetarako Bulegoko webgunean aurki dezakezue hizkuntza-azterketak egiteko deialdiei buruzko informazioa: Cambridge English Exams eta APTIS hizkuntza-gaitasunen akreditazioak.

4.- NAZIOARTEKO MUGIKORTASUN PROGRAMAREN ESLEIPENA

Fakultateko koordinatzaileak ERASMUS+ programako plazak eta Fakultateko AL eta BN plazak esleitu eta gero, Nazioarteko Harremanetarako Bulegoan esleituko dira kupo orokorreko plazak. Bigarren esleipena egiteko ere prozedura berari jarraituko zaio.

Esleipena hizkuntza-baldintzak betetzen dituzten ikasleen artean egingo da, espedientearen batz bestekoaren arabera.

Ikasleak *Buddy* programan parte hartu baldin badu, 0,5 gehituko zaio bere notari. Ingeniaritzako ikasleei 1,17ko faktore zuzentzaile biderkatzailea aplikatuko zaie.

Nazioarteko mugikortasunetan inoiz parte hartu ez duen ikasleak lehentasuna izango du bigarren nazioarteko egonaldia eskatzen dutenen aldean.

Esleitutako plaza posta elektronikoz (@ikasle.ehu.eus) jakinaraziko da.

Ikasleak **GAUR aplikazioan eta epearen barruan onartu beharko du esleitu zaion mugikortasun egonaldia. Egingo ez balu, "egitezko ukoa" gertatu dela ulertuko da, eta, ondorioz, plaza galduko du.** Gainera, penalizazio bat izango du beste nazioarteko mugikortasun deialdi baterako.

5.- HITZARMEN AKADEMIKOA ETA LEARNING AGREEMENT-a

Behin helburuko unibertsitatea esleitutakoan, ikaslea bere titulazioko koordinatzailearekin harremanetan jarriko da "Hitzarmen Akademikoa" adosteko. Gero, ikasleak helburuko unibertsitatean egingo dituen irakasgaiak eta Zientzia eta Teknologia Fakultateak baliotuko dituen irakasgaiak grabatuko ditu GAUR aplikazioan.

Ikasleak Hitzarmen Akademikoa osatzen duten irakasgaietan matrikulatzeaz gain, Fakultateko beste irakasgai batzuetan ere matrikulatzeko aukera izango du, eta irakasgai horiek ez dira Hitzarmen Akademikoan agertuko.

Edozein kasutan ere, GARRANTZITSUA da gogoratzea **Hitzarmen Akademikoan ezin izango dela sartu UPV/EHUn lehenago gainditutako edo ez gainditutako ikasgaiak. Ez gainditutako derrigorrezko edo enborrezko ikasgaiak matrikulatu beharko dira halabeharrez eta distantziara prestatu.** Ikaslearen esku geratzen da ikasgai horien klaseen jarraipena eta ebaluazioa irakasle taldearekin adostea.

Ikasleak gutxienezko kreditu kopuru bat sinatu beharko du bere Hitzarmen Akademikoan, programaren eta egonaldiaren iraupenaren arabera ezarriko dena:

Lauhilabeteko 1 30 kreditu
Ikasturte osoa 60 kreditu

Edozein arrazoiengatik kreditu kopuru hori bete ezin bada, gutxienezko 24 kreditu lauhilabete baterako eta 48 kreditu ikasturte osorako onartuko dira. Beti ere ondo justifikatuta egonik.

6.- EGONALDIAREN LUZAPENA

Eskatutako mugikortasun-aldiak (lauhilabeteko bat edo bi) bat etorri behar du, ezinbestean, norakoen taulan unibertsitate bakoitzarekin batera adierazitako aldiarekin. Hala ere, behin helmugako unibertsitatean dagoela, lauhilabeteko bakarreko mugikortasuna duen ikasleak Erasmus+, Latinoamerika eta Beste Norakoak programetako mugikortasun-aldiaren luzapena adostu dezake helburuko unibertsitatearekin eta Zientzia eta Teknologia Fakultateko ikastegiko koordinatzailearekin.

GARRANTZITSUA da gogoratzea ikasleak EZ duela inolako laguntza ekonomiko osagarririk jasoko egonaldia luzatu ondoren.

7.- DIRU-LAGUNTZAK

Informazioa eguneratuz doa honako webgune honetan:

<https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/dirulaguntzak>

ERASMUS+ diru-laguntzaren gehienezko iraupena: 7 hilabete.

Latinoamerikarako eta Beste Norakoetarako mugikortasunek ez dute diru-laguntza bermaturik. Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak mugikortasun bakoitzeko diru-laguntza bat ematen du, baina hori aurrekontuaren menpe geratzen da.

8.- NAZIOARTEKO BESTE PROGRAMA BATZUK

ERASMUS+, Latinoamerika eta Beste Norakoak programez gain, badaude nazioarteko mugikortasunerako beste programa batzuk, eskaria GAUREn bidez ez egiteaz gain, nazioarteko deialdi orokor honetan eskaintzen ez direnak.

CONAHEC

Estatu Batuetako, Kanadako eta Mexikoko unibertsitateak.

BCI-Quebec

Quebec-eko unibertsitateak (Kanada).

Eskariak ez dira GAURren bitartez egin behar; horren ordez, agiriak Nazioarteko Harremanetarako Bulegoan aurkeztu beharko dira. Eskariak egiteko prozedurari buruzko eta helmuga-unibertsitateei buruzko informazioa bere webgunean argitaratuko da:

<https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/latinoamerika-eta-beste-norakoak>